



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2022ko UZTAILAREN 15eko BILKURAREN AKTA

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2022ko uztailaren 15eko 12:00ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- **Presidentea:** Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea. Presentzialki bertaratu da.
- **Bokala:** Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakartzaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da. Bertaratu da, halaber, Mikel Hidalgo Bordegarai, Trantsizio Sozialeko Proiektuak Koordinatzeko aholkularia.
- **Bokala:** Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Bokala:** Jone Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Bokala:** Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Ordezkoa:** Jasone Agirre Garitaonandia andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Ordezkoa:** Martin Iriberrri jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Bokala:** Olga García Martínez andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- **Bokala:** Alberto Cereijo Fernández jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- **Idazkaria:** Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Presentzialki bertaratu da.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Noemí de la Fuente Pereda andrea eLankidetz Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Estrategikoaren arduraduna eta Pilar Díez Arregui eLankidetzako lankidetzateknikaria bertaratu dira.

Honako hauek ezin etorria adierazi dute:

- **Bokala:** Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa.

Sarrera

eLankidetzako eta haren Kontseilu Errektoreko presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. *2022ko ekainaren 6an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea*
2. *2021eko Memoriaren onarpena*
3. *2022ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea*
4. *Ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa*
5. *Galde-eskeak*

Presidenteak eman dio hasiera bilkurari, eta adierazi du gaur aztertu beharreko gai-zerrendari buruzko dokumentazio guztia alde zuzenetik helarazi dela.

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2022ko ekainaren 6ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoekin.

2. 2021ko Memoriaren onarpena

Presidenteak barkamena eskatu du aurten ez delako posible izan azken bertsioan argitaratutako dokumentua bidaltzea, bigarren kapituluan oraindik ez direlako eguneratu aurrekontu-bilakaerari (39. orrialdea) eta betearaztearen bilakaerari (41. orrialdea) buruzko grafikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuetako aurtengo datuak ez direlako uztail-amaierara arte argitaratzen.

Paul Ortegak hitza eskatu du, eta dokumentuaren azalpen bat egin du, haren ildo nagusiak eta ekimen garrantzitsuenak nabarmenduz.

Azalpenaren ostean, Alberto Cereijok hitza hartu du, diseinu berria balioan jarri du eta zenbait iradokizun eta argibide eman ditu:

- Tokiko bazkideei buruzko informazioa biltzea proposatu du, haien aniztasuna aztertu ahal izateko. Noemí de la Fuentek esan du datu horiek aurten aztertu direla lehen aldiz, Gida Planaren ebaluazioan, eta iradokizuna hurrengo memoriatarako aintzat hartuko dela erantsi du.
- Aurrekontua betearazteari dagokionez, aurreko urteetako ordainketa periodifikatuei buruzko galdera batzuk egin ditu. Noemí de la Fuentek argitu du 2021eko betebeharrak direla, eta ez dutela 2022ko aurrekontua zigortzen, inondik inora.

- 40. orrialdeko taulan akats bat atzeman du, betearazte-ehunekoan. Noemí de la Fuentek gogoan hartu du, ondoren zuzentzeko.
- eLankidetzaren aurrekontua betearaztearen bilakaerari buruzko datuekin grafiko bat egitea proposatu du.

Jarraian, bozkatzeari ekin zaio, eta guztion adostasunarekin onartu da.

3. 2022ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea

Presidenteak hiru ekimen berri onartzea proposatu du: lehena Kolonbian garatuko da Justicia y Paz erakundearekin, Kolonbiako bake-prozesua eta justizia trantsizionala bultzatzeko helburuarekin; bigarrena Afrikako zenbait herrialdetan garatuko da INADES erakundearekin, Afrikan lana sustatzeko apustuari erantzunez eta klima-aldaketaren eremuan; eta hirugarrenak Erdialdeko Amerikan ur- eta saneamendu-alorreko lankidetzako erakundearteko lanari aurten emango zaion bultzada zehazten du, 2018az geroztik Euskadiko lankidetzako erakunde publikoek, URA Uraren Euskal Agentziak eta zenbait ur-operadorek bultzatzen dugun ekimenaren esparruan.

Paulek proposamenak zehazkiago azaldu ditu, eta, besterik gabe, aho batez onartu dira.

Puntu hau amaitzeko, Paulek azaldu du Ginea-Bissaun osasun publikoa indartzeko hitzarmenaren azken bertsioa helarazi dela, Kontseilu Errektore honek urtarrilean onartu eta ekainaren 24an sinatu zena, Gobernu Kontseiluaren ostean, baita martxoan sinatutako Eusko Jaurlaritzaren eta Ginea-Bissauko Osasun Publikoko Ministerioaren arteko elkar ulertzeko memoranduma ere. Tramitazio-prozesuan funtsezko bi aldaketa egin behar izan dira (IV. Klausula alderdi bakoitzaren konpromisoekin, eta Eranskina lehen urteko lan-planarekin), eta horregatik, behin betiko dokumentua ekarri da informatzeko.

4. Ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa

Puntu honetan, presidenteak Pilar Diez andreari eman dio hitza, eta hark azalpen zehatz bat eman du ekintza humanitarioko proiektuetarako aurkeztutako eta onartutako lehen 14 ekimenen inguruan. Azaldu duenez, ekimen horiek krisi ahaztuei laguntzeko erantzunak dira, indarkeriaren gorakadak etengabeak direlako testuinguru horietan.

Hala, ildo horretarako funts guztietatik 2.799.972,46€ esleitu dira, eta milioi bat euro pasatxoko soberakin bat geratu da, iraileko bilkuran beste ekimen sorta bat esleitzeko baliatuko dena.

Ildo ireki eta etengabe horretarako 26 proposamen jaso dira orain arte.

5. Galde-eskeak

Ez denez beste gairik proposatu, presidenteak agur esan du irailera arte, eta saioa amaitutzat eman du 12:46an. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenean paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE^o Beatriz Artolazabal Albeniz andrea,
Agentziako eta haren Kontseilu
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
GLEAko zuzendaria